



# Sanba

Behin, herrixka batean bizi zen gizon batek Sanba bere alaba bakarra txirri-txirriak bilatzera igorri zuen afaltzeko.

Sanba, aitaren erranari jarraikiz, lagun batzuekin basora buruz joan zen txirri-txirrien atzematera.

Basoan neskatxo guziek txirri-txirri ugari hartzen zuten bitartean, Sanbak ez zuen txirri-txirri bat ere harrapatzen. Iluntzean erran zioten lagunek:

– Sanba, gu etxera itzuliko gara berantegi baita. – Idurika pixka bat, erantzun zien Sanbak. Oraindik ez dut txirri-txirri bat ere hartu. Baina nahi baduzue joan zaitzekete, ni geroago sartuko naiz. Ea kirkir bat harrapatzen dudan !

Neskek, Sanbaren errana entzun orduko, bakarrik utzi zuten eta alde egin. Eguzkia sartzen hasi zenean, beldurtu zen Sanba eta ordura arte harrapatu zituen sei kirkirrekin etxerako bidea hartu zuen.

Bide erdian, diquixi bat atera zen eta hauxe galdegin zion Sanbari:

– Nondik zatoz, neska ?  
– Lagunekin egon naiz kirkirrak bilatzen baina lehenago joan dira eta bakarrik gelditu naiz basoan, ihardetsi zuen neskak beldurturik.

– Ongi, pasatzera utziko zaitut. Laster ! erran zuen diquixik. Neska joan eta joan, ibili eta ibili ondoan, bi buru zeuzkan diquixi batekin bekoz-beko gertatu zen eta galde bera egin zion. Erantzuna ere berdina izan zen eta bidearen jarraitzen utzi zuen neska. Kilometro batzuk iragan eta, hiru, lau, bost eta buru gehia-

**txirri-txirriak** : intsektu kanit-riak, kirkirrak, txirrittak.

**erranari jarraikiz** : erranari segituz.

**diquixi** : mamu, txikilimarro.

30 goko zenbait diquixi aitzinean agertu zitzaizkion eta hauek ere pasatzera utzi zuten, hamar burukoa hurbildu arte.

Honek, presaka, Sanbaren aitzurra hartu eta jan zuen. Gero neska harrapatu eta gisa berean iretsi.

35 Sanbaren burasoak kezkatzen hasi ziren alabaren berantarengatik. Orduan aitak eskualdeko gizon guztiak bildu zituen eta horrela erran zien :

- Otoi, zuen laguntza behar dut. Sanba alabatxoa desageritu zaigu ; bilatu behar dugu ! Diquixi bat gurutzatu duke.

40 - Ahalegin guzia eginen dugu zure laguntzeko, erantzun zuten gizonek. Hamar pertsonako taldeak eginen ditugu. Talde batek errekarantz joko du eta besteak basorantz.

- Zaudezte ! Entzun oraino !, erran zuen Sanbaren aitak. Ideia bat bururatu zait : basoko pasabide guztiak oztopatu eta soka bat ezarriko dugu ibaiaren zeharkatzeko. Diquixi guziek errekekako pasabide hau hartuko dute eta pisuena, soka hautsi eta, tranpan eroriko da. Horrela, Sanba jan zuena zein den jakinen dugu.

- Bikain ! Txalo ! Aupa ! oihukatu zuten gizonek makilak altxatuz.

- Orduan prest ? galdetu zien Sanbaren aitak.

50 - Prest gaude, erantzun zioten denek batean. Hara buruz abiatuko gara.

Eta hori erranik, batzuek basora jo zuten, besteek errekarantz. Azken hauek landareen artean ezkutatu ziren diquixien barrandan.

55 Denbora guti iragan eta, lehenbiziko diquixia heldu zen ; gero bi buru zituena eta horrela elkarren segidan azkena heldu arte. Azken hau, hamar burukoa baitzen, zepoan erori zen.

60 Gizonak gordelekutik atera eta diquixia lantzez jo zuten hil arte. Gero, gizonetarik batek diquixiaren sabela zabaldu zuen, Sanba atera eta etxera eramán.

errekarantz : errekkara buruz.

basorantz : oihanera buruz.

oztopatu : trabatu.

tranpan : zepoan, artean.

ezkutatu : gordetu.



Horregatik, egun hartarik aitzina, ez zen nehor bakarrik herrixkatik kanpo oihanean menturatzen.

Pascoal PEDRO, Adao NETO,  
Angolako ipuiak, Gero Mensajero, Kimatxo saila,  
IKASek egokitua.

### ❶ ULERMEN GALDEAK

- Sanba, iluntzean oraino basoan gelditzen da. Haren lagunak, aldiz, etxera sartzen dira. Zergatik gelditzen da bakarrik basoan ?
- Hamar buru zuzkan diquixiak Sanbari zer egin zion ?
- Zer da aitaren asmoa diquixi neska jalearen harrapatzeko ?

### ❷ JOSKERA/ADITZA

- ▶ Pasarte honetako aditzak iraganetik orainaldira alda itzazu.  
*Neskek, Sanbaren errana entzun orduko, bakarrik utzi zuten eta alde egin. Eguzkia sartzen hasi zenean, beldurtu zen Sanba eta ordura arte harrapatu zituen sei kirrekin etxerako bidea hartu zuen.*
- ▶ Erranaldi honetako multzoak, hiru zutabe hauetan eman itzazu. Aitak eskualdeko gizon guziak bildu zituen.

ADITZA	SUBJEKTUA DUEN IZEN MULTZOA	OBJEKTUA DUEN IZEN MULTZOA
--------	--------------------------------	-------------------------------

### ❸ BERRIZ IRAKUR

- ▶ Iluntzean Sanbaren lagunak etxera sartu ziren. Testuan atzeman ezazu iluntzea adierazten duen beste erranaldia.
- ▶ Hiru erranaldi hauek istorioaren ordenari jarraikiz ezar itzazu.
  - Gizonak gordelekutik atera eta diquixia lantzez jo zuten hil arte.
  - Basoan neskatxo guziek txirri-txirri ugari hartzen zuten bitartean, Sanbak ez zuen txirri-txirri bat ere harrapatzen.
  - Eta hori erranik, batzuek basora jo zuten, besteek errekarantz.
- ▶ Diquixiak aipu dira Afrikako kondaira honetan. Haien itxura asma eta marraz ezazu.